

Donibane-Lohitzun'en 1937, Uria, 10'a.

Lafitte adizkide maiteari

Ostaritz'en

Agur!

Gure idaztitxo edo liburutxoak eta propaganda guzia Euzkadi-alde ontako apez eta jaun ezagunenai bialdú nai giñioke. Ortarako jaun oek izenak bear giñituzke. Eskualzaleen Bitzarreko izendegi bat artuaz esango al didazu nor liraken jaun oek? Eta besteran bat-edo-bati bialtzea on ba'litz, esaidazu ere. Ortarako eskatu zaiozu Dassance'ri Urteroko Rapport oetako bat, batzarkideen izenak an etortzen dira-ta.

Emen ari gera EDITORIAL bat antolatu naian, eta uste det laister gertu izango degula. Bertan argitalduko ditugu gure propagandako liburu guziak, eta baita zureak ere, naiz gero Dergains'en etxean egiñak ba lira bezela agertu. Ba liteke Irarkola edo Editorial ori emen be'rtan, Donibane'n ipintzea. Orduan eliz-liburutxoak eta nai zen guzia egingo genduke.

Ague bada eta JEL-aldez nai guzia agindu

Lorenz Mandiako Idar Exaka

Donibane-Lohitzun'dik 1937, Azaroa, 30'a.

Laffite adizkade maiteari.

Ustaritz'en.

Agur!

Aldi bat bada eskatu nizula Euzkadi'ko zati onetako gizon ezagunen ozendegi edo izen lefokada, gure alde egiten ditugun idazti edo liburuak berai bialtzeko. Bañan ez det erantzunik izan. Uste dege ezez egin dezazukela Eskualzaleen Biltzar'ekomizendegia artuaz, eta bertan araitxo batez erakutsiaz nori on litzaken gure idazti oek bialtzea. Ez baldin ba dezu urtero argitaltzen dan liburu ori eskuan eska zaiozu Dassance'ri, eta eskatzen dizudana egin ondoren bialdu zaidazu onera.

Eskatu zaiozu ere neretzat Donibane-Lohitzun'go biltzara edo bilkura egin ondorengo urteko idaztia. Antxen agertzen baida orain 28 urte emen bildu giñanen argazki edo photographia, eta nerekin izan nai nuke.

Zure Eskualdun Loretegia'rik or bai al dezu. Onela ba litz eta asko baldin ba dizuzu bialdu zaidazu bat, eta esaiñazu bere seneufi edo prezioa, bereala zuri bialtzeko.

Oraindik ez degu antolatu gure esmotako Irarkola edo Editorial'a. Uste detanez laister erabakiko da, eta ori egiten ba degu omgi giñake, argitaltzeko gure asmo-zabalketa edo propaganda fuzia, eta ondoren euzko-idazti, aldizkingi edo revue ta gañerakoak, baita zure idaztia ere. Donibane'En egitekoa da gufe asmoa.

Artu al dituzu "A propos de la lettre collective des évêques espagnols" "Angel Zumeta'ren bigafen idaztia" eta beste batzuek?

Bialduko nizkitzuke ez ba dituzu. Agindu bada JEL-aldez

Paul. Emile apate ixiñik dego!

Lorenzeta'at' dar Ixaka'ri

Euzkeraren Aldero

Pro idioma vasco

Buenos Aires'eko Biltzarak

Jose Lopez Mendizabal

sin. aquir
Julia de Charaja de Cudofa

Catherine Dupuy Barrois

Aita Zinab



GABON-ET-VRTE
BERRI-ON



FELICES-NAVIDADES-Y
AÑO-NVEVO

Buenos Aires'en 1946, abenduaren 17'an
Pierre Lafitte apez januari
Ustarits'en

Agur, adizkide maite-maite ori!

Aspalditik nengo zuri idazteko gogotan. Egun oti, azkenik eldu da eta itz oek bialtzen dizkituz poz-ozok eta uste det emendik aurrera alkarren berri maiz izango degula. Bañan laister Eguberriak dira, eta egun zoriotsu batzuek opa dizkituz. Eta ondoren Urte berri dator eta nai nuke ere urte zoriotsu bat guziok izan degugula gure Euzkadi eta gure euskerarentzat.

Zer diozu bada nere adizkide maite eta aztueziña? Urte beltzak jaan dira, bañan Jainkoari eskerrak uste det oreak laister izungo dirala bai zuentzat eta bai guretzat. Zer egiten duza? Beti Ustarits'en al zire? Jakin nuen Baiona'ko "Herria" ren zuzendari zifñala, eta eskerrak eman bear dizkituz, jakin bai nuke nere berri ondoegi ere itz egin zenduela. Nik badakit ongi zure itz oek nere aldeko maitasunagatik sortuak dirala, eta eskerrak ainitz ematen dizkituz. Zu beti nere gogoan zaude. Nola ahantzi nezake zure ontasuna eta euskalzaletasuna? Orain, Jainkoari esker, berriak bialtzeko bidean gera, eta nai nuke alkarren berri maiz jakitea. Ba bada laister idazten didazun.

Gure adizkide Elizagirre'k orain egun batzuek dala orko berri batzuek eman zizkidan. Eta Paris'ko gure "Euzko Deya"n ikusi ditut Barkotxe'ko Biltzarraren jaiak. "darki, osodearki! Ba dakizu nere maitasuna Biltzarren alde eta bere adizkide guzien alde. Gogoratzen al zera lenengoz sarritua izan zifñanean mutiltxo bat zifñala. Nikezin aztu.

Ba dakit, ba dakizula emen argitaldu ditugun liburu guztien berri. Orain urte orrera bialtzerik ez degu izan. Bañan orain Paris'en salgai daude eta onezkeru ba liteke zure eskuetara iritziak izatea. Zuk ere zer edo zer egin bear zenduke emen argitalteko. Orain aste batzuek dala Baiona'ko Le Livre'tik idatzi zidaten esenez ea emen egingo ote gendukean nere "Breve Historia del País Vasco". Erantzun nion ikusteko ez ote zan oreak izungo or bertan egitea, zukedo beste lagunen batek plantsebez ipini edo itzuliaz. Erantzupenaren zai nago. Esango didazu zuk ere zure iritzia. Nere lrti edo Gramatika ere ikusi zenduen noski. Iru milla egin ginduen eta guziak saldu dira. Banaka batzuek gelditzen zaizkigu, eta atzo emen iriki dan Liburu Erakusketa batean ere lenbizi saldu zan liburua nere lrti edo Gramatika ori izan zan. Iru milla egin gifituen. Orain ingelesez edo ingeleraez egiteko asmoa det, eta nere ikasle batek ederki itzuli du inglesera edo ingelanderara. New York edo Jork Berri'n sortu zait ikasle arrigarri bat: Mish eta Garai'tar John jauna. Bi ihlabetean euskera bikain ikasi du eta bere idazkiak arrigarriak dira. Ez da beñere orrelakorik sortu. Benetan arrigarria. Or agertzen da gogo bero batek zer egin dezaken. Mish jauna Vrsovie'koa da, bañan dirudenez, bere ama euzko-odoletik sortua da. Emen euskal-ikastolan beti ikasle asko ditut, eta eranegun buktu dira aurtengo ikastaldiak, datorren urtean jarraitzeko. Esaidazu orain zuek zer egin dezuten, eta zer idatzi edo liburu irten diran, eta gañerakoak. Ongi al dira Leon Leon eta Dassance? Jakin nuen Soubervielle jauna gure lagun auz-aitheza il zala (Goian bego). Serbitzari eta xobi ere uste det ongi dirala. Guzien berri zerbait esan zaidazu.

Emengo Laurak Bat euskaldunen Batzoki edo Centre aundiaren lendakari naiz eta lan aundiak egiten ditugu. Aurtan egin degu Saski-Naski antzerki edo Teatro jai ederra, eun lagunek lan eginiaz eta zazpi aldiz emengo Teatro edo antzoki ederreko batean eginiaz. Besterik ez gaurkoz eta zure berrien zai gelditzan da zure adizkide

Zine Mendizabal de Ixaka
Lopez Mendizabal dar Ixaka.

DR. ISAAC LOPEZ MENDIZABAL

AVDA. BELGRANO 1141

T. E. 38 - 2852

BS. AIRES - R. ARGENTINA

Buenos Aires 'en 1959'ko jorrailaren 23'an

Pierre Lafitte aba jaunari
USTARIZ'EN

Agur, adiskide maite ori:

Aspalditik zure berri gabe naiz, baina uste det beti bezela lanean gogor ariko zerala, eta urte askoan orrela izan de-dilla.

Joan dan Urthárrilako 30'ean bialdu nizun nere liburu berri "Etimologías de apellidos vascos" eta ez dakit artu dezun ala ez. Artu baldin ba dezu jakin nai nuke zure iritzia, eta zure gogokoa izan ba da gero zerbait bere alde "gure Herrian" eta "Herrian" ipintzea.

Amar urte oetan lan orretan aritu naiz. Ba dakit gai askotan asmatuko ez nuela, baina bestetan ongi egin ba det pozik izango naiz. Argatik ere idaztlan arkitzen dituzun oker guziak esan zaizkidazu gogoan artzeko eta bigarren aldiz egingo ba litz be-rak zuzentzeko.

Zuri igorritako egunean Intxausti eta Dassance adiskideai idazti bana bialdu nioten, baina berek ere ez uidate erant-zun eta ez dakit artu ote duten.

Gero zure laguntzaren bearra izango det or sal-tzeko eta zure ezagun batsuen izenak pozik artuko ditut. Gai onen berri berriz idatziko dizut.

Nik bildu ditudan abizenetan (nom de familles) ez daudenak bildu zaizkidazu ~~eta~~ ere, eta beragatik eskerrak ematen dizkizut.

Agur adiskide maitea eta ba dakizu zutaz beti gogoratzen dala zure adiskide zar

Lopez-Mendizabal'har IXAKA